



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2019KO MAIATZAREN 23AN  
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

**Zinegotziak:** Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Josune Estella Arranz eta Irene Gartzia Palacios.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2019/05/14.**

Jone Urdanpilleta abstenitu egin da ez baitzen bilkura horretan egon.

Gainontzekoen aldeko botoarekin 2019ko maiatzaren 14ko aktari onespena eman zaio.

**2.- FERROVIAL SERVICIOS, S.A. ENPRESARI, UGALDEA INDUSTRIALDEA 19AN EZARRI NAHI DUEN OBRA PUBLIKOETARAKO MATERIALEN BILTEGI ETA IBILGAILUEN JARDUERA EZARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.07/2018-0339

FERROVIAL SERVICIOS, S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Ugaldea industrialdea 19an ezarri nahi duen obra publikoetarako materialen biltegi eta ibilgailuen garaje jarduera ezartzeko udal baimena eskatzen du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2018-0339

ESKATZAILEA: FERROVIAL SERVICIOS, S.A.

JARDUERA MOTA: Obra publikoetarako materialen biltegia eta ibilgailuen garajea

NON KOKATUA: Ugaldea industrialdea 19

Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 188. zenbakia, 2018ko irailaren 28an). Jendaurreko epealdian ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2018ko urriaren 9an helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko urriaren 30ean aldeko informea eman zuen.

Ondoren, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Euskadiko Lege Orokorrak aurreikusten duen moduan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak



Usurbilgo Udala

aipatu jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri ditu.

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENA:** FERROVIAL SERVICIOS, S.A. enpresari, Ugaldea industrialdea 19an ezarri nahi duen obra publikoetarako materialen biltegi eta ibilgailuen garaje jarduera ezartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Aldeko Egiaztapen Akta lortu arte, inolaz ere jarduerarik ez da legeztatuko.
- Akta hori eskuratzeko, eskatzaileak alde zuzenetatik Udalari eskatu beharko dio Egiaztapen hori burutzea. Eskararekin batera aurkeztuko da, Obra eta instalazioetako Zuzendari Teknikoak egindako Ziurtapena, non zehaztuko baita aipatu instalakuntza eta obrak emandako baimenaren arabera eraiki direla. Era berean industria sailak luzatutako baimena aurkeztuko da. Baita jarduera proiektuaren beste ale bat ere.
- Baldin eta aipatu egiaztapenerako eskaera aurkeztu baino lehen, makina edo instalakuntzen funtzionamendua egiaztatuz frogaren batzuk egin behar balira, titularrak bost egun aurretik Alkateari adierazi beharko dio, froga horren iraupena zehaztatuz eta ingurua, pertsonak eta ondasunak arriskuan ez direla jarriko garrantziaz; froga horiek egiterakoan Udaletxeko Teknikoek bertaratzetik izango dute.

**BIGARRENA:** Aurkeztutako Proiektuari egokiturik egingo dira obra eta instalazioak, beti ere, jarraian aipatuko diren baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

**HIRUGARRENA:** Neurri Zuzentzaileak. Jarduerak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ezarritako ondoko neurri zuzentzaileak bete beharko ditu.

1. Erakunde Tekniko aginpidedunek oro har aplikatzeko ematen dituzten berariazko arauak bete behar dira.
2. Sustatzaileak lurzorua kutsa dezaketen jardueren titularren eginbeharrak beteko ditu, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legeak ezarritakoak. Bereziki jarduera edo instalazioa uzten denean lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioaren prozedura hasteari dagokion eginbeharra bete beharko da.

Aurreko eginbehar hau betetzeaz salbuetsita geratuko dira kutsatzeko ahalmen txikia daukaten jarduerak, baldin eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legeko 25. artikuluko baldintzak ematen badira. Sustatzaileak salbuesteko kasu honen aurretiazko komunikazioa bidali beharko du ingurumen-organora.



Usurbilgo Udala

3. Etorkizunean partzelaren mugen barruan hondeaketak edo lur mugimenduak aurreikusten dituzten obrak burutuko badira, sustatzaileak, ekainaren 25eko, 4/2015 Legean ezarritako lur kalitatearen arloan dagokion deklarazioaren markoan ingurumen organoak emandako aldeko pronuntziamendua egiaztatu beharko du, eta hori lur mugimenduei hasiera eman aurretik.
4. Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legeko 22.2. artikulua adierazitakoaren arabera, lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik antzematen bada, egoera horren berri berehala eman behar zaie Udalari eta Erkidego Autonomoko ingurumen-organuari.
5. Sustatzaileak ingurumen-organoren aldeko berariazko erabakia egiaztatu beharko du, dagokion lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioaren prozeduraren baitan, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legea betez. Egiaztapen hau aurkeztea beharrezkoa da jarduera lizentzia edo jarduera handitzeko lizentzia lortu ahal izateko.

Edozein kasutan, sustatzaileak kontsideratzen badu leku horretan bete egiten direla lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioa egitez salbuesteko exijitzen diren baldintzak, eta puntu hauek egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu badezake, orduan neurri zuzentzaile hau betetzeaz salbuesteko eskaera egin dezake ingurumen-organoren aurrean.

6. Urtarrilaren 14ko, 9/2005 Errege Dekretuko, 3. artikulua betetzeko sustatzaileak lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txostena aurkeztu beharko du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzan. Txosten hori Sailburuordetzaren webgunean eskuragarri dagoen prozeduraren arabera landu beharko da.
7. Pabiloiaren zorua iragazgaitza izan beharko da.
8. Jarduera pabiloiaren barruan burutuko da beti eta zaratak ahalik eta gehien murrizteko eran. Pabiloiko ateak sartu irtenak ahalbidetzeko beharrezkoa den denbora tarte motzenez egongo dira irekita soilik.
9. Zarata kutsadura saihesteko neurriak jarriko dira martxan, eragin akustiko txikiagoa duten teknologiak aplikatuta, kontuan izaki Eskuragarri dauden Teknikarik Onenak, hau da, teknikoki eta ekonomikoki bideragarri diren eta kutsadura gutxien sortzen duten teknologiak, eta aintzat harturik zarataren igorlearen ezaugarriak. Jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko, urriaren 16ko, 213/2012 Dekretuko 51. artikuluan aipatutako zarata-foku berriei aplikatzeko muga-balioak eta bat datorren gainontzeko araudikoak beteko ditu.
10. Dardarak aldameneko nabe eta lokalen egiturei transmititzea ekiditeko, beharrezkoa den makinerian dardaren aurkako elementu egokiak ezarriko dira.



Usurbilgo Udala

11. Jarduerak sor dezakeen kutsadura atmosferikoa murrizteko eta auzokideak gogaitu ditzakeen usainik ez sortzeko, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu titularrak instalazioen diseinuari eta ustiapenari dagokienez.
12. Saneamendua banatzailea izango da eta ondo definituak eta independenteak izango diren ondoko sareak edukiko ditu:
  - Pabiloiaren estalkietako urak jasoko dituen poluitu gabeko euri-uren sarea.
  - Komunetako uren sarea. Bertako isuriak saneamendu-sarera konektatuko dira.
13. Aipatutako isurketak baino ez dira existituko.
14. Jarduerari ekin aurretik, titularrak kolektorera Isurtzeko Baimena, erakunde aginpidedunek emandakoa, aurkeztu beharko du Udalean.
15. Sortutako hondakinak, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailaren 28ko, 22/2011 Legean ezarritakoaren arabera kudeatuko dira udal-araudiaren kalterik gabe.
16. Espreski debekatuta geratzen da sortutako hondakin tipologia desberdinak nahastea, nahiz arriskutsuak zein ez arriskutsuak izan. Hondakinak jatorrian banatuko dira eta aipatutako nahasketak ekiditearren hondakinak jasotzeko eta biltegiratzeko baliabide egokiak eduki beharko dira.
17. Hondakinen sorkuntza ahal den heinean murriztu beharko da. Sortzen diren hondakinak uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 8 artikuluan ezarritako hierarkiak adierazitako lehentasunaren ordenarekin kudeatuko dira, hau da: prebentzioa, berrerabilpenerako prestaketa, birziklapena eta beste balorizazio mota batzuk, balorizazio energetikoa barne. Arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik aipaturiko prozedurak aplikatu ezin badira, ingurumenaren gaineko eragina ekidin edo ahal bezain beste murrizteko eran eliminatuko dira.
18. Sortutako hondakin ez arriskutsuei buruz (plastiko, paper, kartoi, egur, beira hondakinak, hondakin metaliko ez arriskutsuak, osagai arriskutsurik gabeko tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak etab.), hondakinak lehen aldiz kudeaketa-instalazio batera eraman aurretik jardueraren titularrak hondakin ez arriskutsuen adierazpena egin beharko du. Horretarako hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko, otsailaren 24ko, 49/2009 Dekretuko VI. eranskinean agertzen den inprimakia erabili beharko du.
19. Pinturen hondakinak, disolbatzaileak, olioak, konpresoreko purgetako urak, osagai arriskutsuak dauzkaten tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak eta orokorrean arriskutsu kontsideratutako gai/prestakinen hondakinak sortzekotan, horiek gorde dituzten ontziak, kutsatutako iragazkiak, xurgatzaileak, trapuak eta



Usurbilgo Udala

kotoiak, eta hodi fluoreszenteak, merkuriozko lanparak etab. deuseztatu nahi izatekotan, dagozkien baldintzak betez jasoko dira, hau da, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailaren 28ko, 22/2011 Legeak, Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko, otsailaren 20ko, 110/2015 Errege Dekretuak eta hondakin arriskutsuei buruzko gainerako araudian ezarritakoa jarraituz. Hondakin arriskutsu horiek biltegitratuta dauden denboran behar bezala etiketatuta egongo dira, teiltupean eta zoru iragazgaitzaren gainean eta egon daitezkeen isurketa akzidentalak atxikitze sistema bat edukiko dute.

20. Aipatutako uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta izaera sektorialeko gainontzeko araudiak ezarritakoaren kalterik gabe, hondakinen sortzaile aurre-komunikazioa aurkeztu beharko da jarduera abian jarri aurretik Ingurumen Sailburuordetzan. Komunikazio honen edukia Legearen VIII eranskinean aipatutakoa izango da.
21. Sortutako hondakin arriskutsuak mantenu lanetan hirugarren batzuek sortutakoak besterik ez badira, eta hauek hondakinak euren kargu hartu eta eurenak balira bezala kudeatuz gero, puntu hori bi aldeek sinatutako kontratuan agertu beharko da. Kontratu hori da uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 29. artikuluan adierazitako komunikazioa egitetik salbuesteko eskaera egiteko enpresak aurkeztu beharko duena.
22. Sustantzia arriskutsuen biltegitratzea euren arteko bateraezintasuna kontuan izanik eta segurtasun datuen fitxen argibideak jarraituz egingo da. Material horientzako iragazgaitz, erresistente eta eraldaezin izango den lurzoru gainean biltegitratuko da, euri urekin kontaktua edukitzea ekidingo da eta isurketak atxikitze sistema bat edukiko du.

Isurketa baten ondoren atxikitze kubetoak berehala hustuko dira eta isuritako likidoa leku egokian biltegitratuko da berriro.

Haizea, uholdeak, euria edo ibilgailuen joan-etorrien ondorioz produktuak biltegi gunetik kanpora arrastatzea edo isurtzea ekiditeko beharrezko neurriak hartuko dira.

23. Garbiketa, konponketa eta instalazioen bestelako mantenu lanak, hondakinen, isurketen edo emisioen sorrera murrizteko eran burutuko dira.
24. Arazketarako eta kutsaduraren prebentziorako ekipamenduen eta instalazioen (aireko iragazkiak, isurketen araztegia, atxikipen kubetoak, sustantzia arriskutsuak dauzkaten produktuen dosifikagailuak etab.) egoera ona bermatzeko helburuarekin, titularrak egin beharreko mantenu, ikuskaritza eta kontrol lanak eta lan hauen maiztasuna jasotzen dituen programa bat eduki beharko du. Lan hauen, emandako gertakarien eta, bere kasuan, hartutako soluzioen erregistro bat eraman beharko da.



Usurbilgo Udala

25. Titularrak berehala informatu beharko dio Administrazioari kanpoko ingurunea kutsa dezakeen istripu edo jazoerarik ematen bada.
26. Suteen aurkako neurriek erakunde eskudunak ezarritakoa jarraituko dute.
27. Proiektuan jasotzen diren zehaztapen eta neurri zuzentzaileak derrigorrez bete beharko dira, beti ere aurrez aipatutako neurrien aurka ez doazenean.
28. Txosten honetan ezarritako neurri zuzentzaileak aurkeztutako proiektuari buruzkoak dira, jardueraren funtsezko edozein zabalkunde edo aldaketa izapidetu egin beharko da, horretarako Udalean dagokion izapidetzea egin beharko delarik, dagokion lizentzia lortu xedez.
29. Txosten hau eta honen ondoren udaleko sailkatutako jarduera lizentzia emateak ez die amaiera jartzen sustatzaileak aintzat hartu behar dituen ingurumen arloko eginbeharrei. Horrela honek, bere jarduera funtzionamenduan mantentzen den denboran zehar, hasieran baimendutako jarduera egokitu egin beharko dio indarrean sartzeko, eta aplikaziokoa zaion, araudi berriari.

3/1998 Legearen, otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, 59.2 atalak agintzen duenez, zuzenketak ezartzeak Udala-Agintaritzaren behartu egiten du, honek jardueraren lizentzia emateko administrazio ekitaldian sartu behar dituelarik. 64.1 artikulua araberako Udalei dagokie jarduera sailkatuak ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak eraginkortasunez gauzatzeko eskumena.

**LAUGARRENA:** Aldez aurretik ondorengo Udala zerga ordainduko da:

- Obra eta Instalazioen zerga
- Argitalpenak


**BOSGARRENA:** Jardueraren errotulazioa euskaraz jarriko da, udala honek Euskararen erabilera normalizatzeko onartuta daukan udala ordenantzaren arabera; hala eskatuko balitz, udala honek horretarako beharrezko laguntza teknikoa eskainiko du.

**SEIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

### **3.- OIARDO KIROLDEGIKO INSTALAKUNTZEN ERREFORMARAKO, EGOKITZAPENERAKO ETA BIRGAITZEKO OBRAREN 01-A FASEKO (1. LOTEA) ETA 01-B FASEKO (2. LOTEA) OBREN EXEKUZIORAKO PREZIO KONTRAESANKORRAK.**

Esp. Zenbakia: ID.05/2018-0284

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko ekainaren 26an egindako ohiko bilkuran, Usurbilgo Oiarde Kiroldetiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzeko obraren 01-A fasea (1. lotea) eta 01-B fasea (2.lotea) kontratuak esleitzeko



Usurbilgo Udala

prozedura ireki sinplifikatuak onartu zituen. 2018ko ekainaren 27an argitaratu ziren iragarkiak Udal Kontratatzaile Profilean.

2018ko irailaren 11ean, Tokiko Gobernu Batzarrak, Usurbilgo Oiardo kiroldegiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzerako obraren 01 fasearen kontratua honako eran esleitzea erabaki zuen:

LOTEA	ESLEIPENDUNA	PREZIOA
1	Construcciones Mariezcurrena SL	411.860'37 € (%21eko BEZ-a 86.490'68 €, guztira <b>498.351'05 €</b> )
2	Construcciones Mariezcurrena SL	222.555'13 € (%21eko BEZ-a 46.736'58 €, guztira <b>269.291'71 €</b> )

Kontratuak 2018ko irailaren 17an izenpetu ziren Construcciones Mariezcurrena SL enpresarekin.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko otsailaren 12an Oiardo Kiroldegiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzeko obraren 01-A faseko (1. lotea) obraren exekuziorako Prezio Kontraesankorren 1., 2., 3., 5., 6., 7. eta 8 Aktak onartzea erabaki zuen.

2019ko martxoaren 6an, Obra zuzendaritzak –ACBA arquitectos S.L.P. (IFK: B20975090): Asier Acuriola eta Fernando Bajo– eta obrako arduradunak –Construcciones Mariezcurrena SL (IFK: B31083199): Jose Luis Lopez–, Prezio Kontraesankorren 9., 10., 11. eta 12. Aktak izenpetu zituzten.

Hala ere, geroztik, izandako elkarrizketen ondorioz, 2019ko martxoaren 20ean, Obra Zuzendaritzak obraren aurrikuspena aurketu du 9. eta 10. prezio kontsaesankorrek kanpo utziaz eta gainontzekoak berrantolatuz. Hala, azkenik onespenerako aurkeztutako prezioak honakoak dira:

1A OBRA FASEA			
kode a	partida	Salneurria PEM	Salneurria PEC + %21 BEZ
01	REPARACIÓN PILARES HORMIGÓN	1.806,50 €	2.601,17 €
02	FORMACIÓN MÉNSULA HORMIGÓN	167,26 €	240,84 €
03	AISLAMIENTO EN TECHO	1.192,00 €	1.716,36 €



Usurbilgo Udala

05	CARGADERO DE FACHADA (93,75euro/ml x 12,25 ML)	1.148,43 €	1.653,62 €
06	REPARACIÓN PILARES DE FACHADA	806,33 €	1.161,04 €
07	FONTANERÍA DUCHAS	3.601,70 €	5.186,08 €
08	MODIFICACIÓN CUADRO ELÉCTRICO EXISTENTE	1.345,00 €	1.936,66 €
<b>Guztira 1A FASEA</b>		<b>10.067,22 €</b>	<b>14.490,00 €</b>

<b>1B OBRA FASEA</b>			
kode a	partida	Salneurria PEM	Salneurria PEC + %21 BEZ
11	GRESITE DUCHAS (67,25euro/m2 x 28 m2)	1.883,00 €	2.711,33 €
12	GRESITE PILARES	3.087,05 €	4.445,04 €
<b>Guztira 1B FASEA</b>		<b>4.970,05 €</b>	<b>7.156,37 €</b>

Obra zuzendaritzak izenpetutako Prezio Kontraesankorren aktak igorri ditu Kontratua esleitzeko eskudunak onar ditzan.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 2. xedapen gehigarrian xedatutakoa eta 2005eko abenduaren 12ko Alkatetzako Dekretua ikusita, kontratua esleitzeko eskuduna Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarra da.

Gauzak horrela, Prezio Kontraesankorren Aktak zuzendaritza fakultatiboak eta obren kontratista esleipendunak sinatuta dituela eta obra zuzendaritzak justifikatu dituela kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Tokiko Gobernu Batzarrak otsailaren 12an hartutako erabakia ordezkatzea, Oiardo Kiroldegiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzeko obraren Prezio Kontraesankorrei dagokiena.

**BIGARREN:** Oiardo Kiroldegiko instalakuntzen erreformarako, egokitzapenerako eta birgaitzeko obraren 01-A faseko (1. lotea) obren exekuziorako Prezio Kontraesankorren 1., 2., 3., 5., 6., 7. eta 8. Aktak eta 01-B faseko (2. lotea) obren exekuziorako Prezio Kontraesankorren 11. eta 12. Aktak onartzea.

**HIRUGARRENA:** Aipatutako Prezio Kontraesankorrei dagokien kopurua 1.6000.623.342.00.02 partidatik (AD 2019-915) bideratuko da.





Usurbilgo Udala

**LAUGARRENA:** Alkateari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezko dokumentuak izenpetzeko.

#### **4.- HASIZ HAZI BEKA, EKINTZAILEENTZAT KABIENE ELKARTEAK DUEN ELKARLAN GUNEAREN ERABILERARAKO 2019 URTEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp.zk.: HE.06/2019-28

##### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, 2019an proiektu berri bat duen ekintzaileari laguntzeko bideratuko du Hasiz Hazi beka.

Beka hau Kabiene eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzan oinarritzen da. Proiektu berri bat duen ekintzaileari, urtebeteko egonaldia diruz ordainduko zaio Kabiene elkarteak duen elkarlan gunean, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezaten.

Beterri -ekinean zerbitzutik tutorizazio bat ere emango da, eta enpresa abian jartzea eta finkatzearekin lotutako laguntzak ere eskainiko zaizkio, horrela badagokio

Oinarri hauen helburua da, ekintzaileak bere enpresa proiektua garatzen duen bitartean laguntzeko baliatuko diren arauak biltzea, norgehiagoka erregimenean eta 2018. urterako.

Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

##### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** 2019rako Hasiz Hazi bekaren oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko 1.5000.481.241.00.02 partidatik ezartzen diren 2.178 €.

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.



Usurbilgo Udala

**Laugarrena:** Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2019ko irailaren 30 arte.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

## 5.- EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01/2019-109

### Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin. Horretarako, Ordenantzaren arabera, bitartekoetako bat euskararen zabalpen funtzionala da, alegia, euskaldunen kopurua handitzea eta hobeagotzea, euskara ez dakitenek ikasi dezaten bideak jarri, eta dakitenak alfabetatu daitezen bitarteko egokiak bideratzea.

Usurbilgo Udalak oso garrantzitsutzat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2018-2019 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Usurbilgo biztanleei bekak emateko.

### Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (2017/07/18)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Euskara ikasleentzat dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi erantzen zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gairidituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1.4200.480.335.00.01 2019 (A 894/2019)

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Laugarrena:** Interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: 2019ko ekainaren 24tik uztailearen 5era bitartean (biak barne)

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

## 6.- AISIALDIKO BEGIRALE EDO ZUZENDARI IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAT DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk: 01/2019-108

### Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin.

Aisialdia gizarte bizitza horretako zati bat da eta gure gizartean gero eta garrantzia handiagoa duena gainera.

Aisialdiko begirale eta zuzendariak berariaz eta era egokian prestatua egotea garrantzitsua ikusten du udalak. Are gehiago, prestakuntza hori euskaraz jasotzea garrantzitsua iruditzen zaio udalari.

Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2017-2018 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak egin dituztenentzako biztanleei bekak emateko.

Bide honetatik, Usurbilgo Udalak aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa egin dutenentzat dirulaguntzak bideratzeko dirulaguntza oinarriak prestatu ditu.

### Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (2017/07/18)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzat dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1 4400 481 326 00 01 2019 (A 895/2019)

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Laugarrena:** interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: 2019ko ekainaren 2tik uztailaren 5era bitartean (biak barne)

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**